

## **Ekin bearra!!**

*Euzkadi* [Caracas], 66. zk., 1950-01: 20.

Ludi guzian EUSKERA EGUNA ozpatu da. Caracas'en ere alako jai berezi bat egin degu, itzaldiak egin dira.

Euskeraren miña, euskeraren gaitza, ordea, baren-barrengoa da; axaleko jai orrek sendatu ezingo duan gaitza.

1950'ko urteari aziera eman diogu: euskeraren berpizkunde urtea izan dedilla! Gure iskuntzaren izateak bear duan txertua ematen aurten jakin dezagun!

Orain jaio dan urte onetarako asmo beroak artu ditugu. Euskera ikasi nai duan guziak bere etxean izango du bidea. Bertarako dajoakio euskaldun izateko bide erreza: eskutitzez bialduko zaizkio ikasbide errez eta egokiak. Euskotar izan arren, euskaldun ez diran guziak bear ditugu ikasle bezela.

Ta euskaldun dan guzientzat eginkizun bear-bearreko bat: euskeraz itz egin! Etxean, Eusko-Etxea'n, euskaldun artean non nai: EUSKERAZ. Alperrikakoak izango dira beztela gure negar guziak, utzak gure asmoak, utz-utzean geratuko da gure naia.

Gai onetzaz ere zerbait egingo da. Euskeraz itzegiten duten pelotari ta muslarientzat zari batzuek antolatuko dira. Erderazko ipui batzuek euskerara aldetzeko asmoa artu da, ta ondoena egiten duanentzat beste zari eder bat berezi da.

Onela, gure Eusko-Etxea'ko zuzendariak beste gauz asko egiten azi dira ta asmoenurrun eginkizunak ba'ditugu ez gera makal ibilliko. Bañan oraindik asmo utz-utzean gaude ta asi bear, ekin bear, abitu bear...

1950'garren urte au eginkizunaren urtea izan izan dedilla. Azi gaitean ba-batean eta bereala. Asmoak ba'ditugu.

Orain: EKIN BEARRA!

*Erritar* [Martin Ugalde]